

BEZEROEI ETA ERABILTZAILEEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA.- II. GERUZA:

SELAEk adierazten du zehatz-mehatz errespetatzen duela pertsonen beren datu pertsonalen tratamenduaren inguruan duten funtsezko eskubidea, eta datuak babesteko araudian ezarritakoa zorrotz betetzen duela:

- EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienean –DPBEDBLO-.
- Eta aplikatu beharreko garapen-araudia.

Jarraian, Bezeroen eta Erabiltzaileen Datu Pertsonalen tratamenduari buruzko informazio egoki osoa agertuko da, honako hauena izan ezik:

- SELAEren Jokoaren Plataforma Digitalean inskribatutako bezeroak: kasu horretan, Parte-hartzaileentzako pribatutasun-politika aplikatzen da. Esteka honetan eskura daiteke: www.loteriasyapuestas.es/f/loterias/centro_de_ayuda/Politica_Privacidad_Participantes.pdf.
- Web erabiltzaileak: kasu horretan, Datuak Babesteko xedapenak eta Cookien gaineko politika aplikatzen dira. Esteka honetan eskura daitezke: www.loteriasyapuestas.es/es/centro-de-ayuda/informacion-pie/estipulaciones-proteccion-datos.
www.loteriasyapuestas.es/es/centro-de-ayuda/informacion-pie/politica-de-cookies.

Datu Pertsonalen Babeserako arduraduna eta ordezkaria:**Arduraduna:**

- Sozietatearen izena: SOCIEDAD ESTATAL LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO, S.M.E., SA (SELAE).
- IFZ: A86171964.
- Helbidea: Joan Maragall Poeta kalea 53 - 28020 Madril.
- Telefonoa: 900 11 23 13 / 91 596 23 00 (Bezeroak Artatzeko Zerbitzua).

Harremana Datu Pertsonalak Babesteko ordezkariarekin (DBO):

- Posta bidezkoa: Joan Maragall Poeta kalea 53, 28020 Madril (“Datuen Babesa”)
- Helbide elektronikoa: www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos

Tratamenduaren helburua:**Helburua:**

Bezeroen eta erabiltzaileen datu pertsonalak tratatzen dira SELAEren zerbitzuak emateko eta publiko orokorrarekiko harremana izapidetzeko.

Halaber, legea betetzearekin loturiko jardueretarako tratatzen dira, Jokoaren Legeko, Kapitala Zuritzearen Prebentzioko eta Iruzurraren Prebentzioko alderdiak eta aplikatu beharreko alderdi arautzaile guztiak barne, baita Datu Pertsonalen eskubideen kudeaketa ere.

Era horretan, lege-esparruaren barruan, SELAEren enpresa-betebeharrak eta kudeaketako enpresa-jarduerak bete behar dira, zerbitzua behar bezala emateko eta hobetzeko beharrezkoak izategatik, eta SELAEren interesak defendatu behar dira. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, zerbitzuaren gobernuak, zuzendaritza, kudeaketa, monitorizazioa, gainbegiratzea eta ikuskapena, estatistika-azterketa erantsi, prozesuen hobekuntza, informazioaren babesa eta araudia betetzea barne, tartean datu pertsonalak babestearena. Betiere, beti errespetatu behar dira behar bezalako konfidentzaltasuna, pribatutasuna eta datuak minimizatzeko printzipioak, eta, bideragarria izanez gero, seudonimizatu edo anonimizatu egingo dira, bideragarria den bezain laster.

Funtsezko eskatzaileak eta erreklamatzailerak:

Datu pertsonalak (eskatzaile eta erreklamatzailerak) eskatzaileek egiten dituzten eskaerak edo jokoaren edo emandako zerbitzuen inguruan salmenta-puntuetan, merkataritza-ordezkaritzetan edo SELAEn bertan aurkezten diren erreklamazioak izapidetzeko tratatzen dira.

Saridun Nagusiak:

Datu pertsonalak (saridun nagusienak edo horien ordezkarienak) sari handia irabazi duten pertsona fisikoei ordaintzeko tratatzen dira, zerga bereziaren edo beste identifikazio-betebehar baten mende daudenak indarrean den araudiaren arabera, eta baita benetako titularrei ordaintzeko ere, pertsona juridikoen kasuan.

Peñakideak:

Peñakideen datu pertsonalak sari handiak erreklamatzeko unean ezagutzen dira; SELAEk orduan identifikatzen ditu, eta dagokion sariak ordaintzen dira.

Datuak tratatzeko eta kontserbatzeko epea:**Eskatzaile eta erreklamatzailerak presentzialak:**

6 urte, eskaerari edo erreklamazioari erantzun ondoren.

Saridun Nagusiak:

10 urte, sariaren ordainketa egin ondoren (kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legeak aginduta).

Peñakideak:

10 urte, sariaren ordainketa egin ondoren (kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legeak aginduta).

Datuak kontserbatzea:

Nolanahi ere, artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Legitimazioa:

Tratamendurako lege-oinarriak honako hauek dira:

Eskatzaile eta erreklamatzailerak presentzialak:

Kasu zehatzaren arabera, oinarri juridikoa ondorengo izango da:

- Legezko betebeharrak, eskaeraren edo erreklamazioaren izapidea legez araututa dagoenean.
- Kontratu-beharrak, eskaeraren edo erreklamazioaren izapidea interesatuaren eta SELAEn arteko kontratu-harremana izateari lotuta dagoenean eta izapide hori beharrezkoa bada harreman horri eusteko.
- Adostasuna, aurrez aurreikusitako kasuetan.

Saridun Nagusiak:

Saridun Nagusien datuen tratamendua SELAEn kontratu-betebeharretan eta lege-betebeharretan oinarritzen da; hala nola, joko-araudia; araudi fiskala; iruzurraren aurkako legea; kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko legea; datu pertsonalak babesteko indarrean den araudia; dokumentu-ondarea... Legezko betebeharrek eskatzen dute, beste helburu batzuen artean, saridun nagusiak identifikatzea, jokoak debekatzeko RGIAJn egoteagatik (Jokatze Debekurako Erregistro Nagusia), jokoaren arriskuaren portaerari buruzko ekintzak egitea eta detektatzea 958/2020 EDren arabera (34. eta 35. artikulak), etab.

Peñakideak:

Peñakideen datuen tratamendua SELAEren kontratu-betebeharretan eta lege-betebeharretan oinarritzen da; hala nola, joko-araudia; araudi fiskala; iruzurraren aurkako legea; kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko legea; datu pertsonalak babesteko indarrean den araudia; dokumentu-ondarea... Legezko betebeharrak eskatzen dute, beste helburu batzuen artean, peñakideak identifikatzea, jokia debekatzea RGIAJn egoteagatik (Jokatzeo Debekurako Erregistro Nagusia), jokoaren arriskuaren portaerari buruzko ekintzak egitea eta detektatzea 958/2020 EDren arabera (34. eta 35. artikulua), etab.

Hartzaileak:

Eskatzaile eta erreklamatzailer presentzialak:

FNMTri (Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala) edo finantza-erakundeei jakinarazi ahal izango zaizkie, gorabehera/erreklamazioari irtenbidea emateko. Ez zaie beste jakinarazpenik egingo hirugarrenei, lege-betebeharren bat dagoenean izan ezik.

Saridun Nagusiak:

Zerga-administrazioa, administrazio publikoko beste erakunde batzuk, Jokia Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Segurtasun-indarrak eta -kidegoak, arlo horretan eskumena duen administrazio publikoa, abokatuak, prokuradoreak, epaitegiak eta auzitegiak.

Peñakideak:

Zerga-administrazioa, administrazio publikoko beste erakunde batzuk, Jokia Antolatzeko Zuzendaritza Nagusia, Segurtasun-indarrak eta -kidegoak, bankuak, aurrezki-kutxak eta landa-kutxak, arlo horretan eskumena duen administrazio publikoa, abokatuak, prokuradoreak, epaitegiak eta auzitegiak.

Nazioarteko transferentziak:

Ez da aurreikusten Datu Pertsonalak transferitzea hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara.

Eskubideak:

Eskubidea duzu zure Datu Pertsonalen gaineko eskubideak gauzatzea SELAeri eskatzeko.

SELAEk, tratamenduaren arduradun gisa, datuak babesteko legez ezarritako eskubideak erabiltzea bermatzen die interesatuei, aplika daitekeen araudian deskribaturiko baldintzen arabera. Hona hemen aipatu eskubideak:

- Datu pertsonaletara sartzeko eskubidea. Erabiltzaileak edozein unetan sartu ahal izango dira Datu Pertsonaletara eta SELAEk haien Datu Pertsonalen gainean egiten duen tratamenduaren inguruko informazioa eskatu ahal izango dute.
- Datu pertsonalak zuzentzeko eskubidea. Erabiltzaileek eskubidea izango dute Datu Pertsonalak zuzentzeko eskatzeko, horiek okerrak edo osatugabeak badira.
- Ezabatzeo eskubidea. Erabiltzaileek eskatu ahal izango dute haien Datu Pertsonalak ezabatzeo eta ez tratatzeo, baldin eta jada beharrezkoak ez badira jaso ziren helburuetarako.
- Tratamendua mugatzeko eskubidea. Erabiltzaileek eskubidea izango dute haien Datu Pertsonalen tratamendua mugatzeko eskatzeko, legez hala ezartzen denean.
- Tratamenduari aurka egiteko eskubidea. Erabiltzaileek beren Datu Pertsonalen tratamenduari aurka egiteko eskubidea izango dute, komunikazio komertzialak bidaltzeo helburuarekin erabiltzen badira edo legeak hala ezartzen badu.
- Datuen eramangarritasunerako eskubidea. Erabiltzaileek eskubidea izango dute haien Datu Pertsonalak formatu egituratuan jasotzeo, erabilera komuna eta irakurketa mekanikoa dituen formatuan, eta tratamenduaren beste arduradun bati transmititzeo.

- Erabaki automatikoetatik baztertze eta gizakiak esku hartzeko eskubidea eskatzekoa, ikuspuntua adierazteko edo erabakiaren aurka egiteko eskubidea, betiere legezko betebeharrak betetzeko egin ez bada.
- Baimena kentzeko eskubidea, hori tratamenduaren oinarri juridikoa bada. Erabiltzaileek emandako baimena kendu ahal izango dute edozein unetan, hori tratamenduaren oinarri juridikoa denean. Baimena kentzeak ez du eraginik izango kendu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean.

Zuk zure eskubideak gauzatu ahal izango dituzu:

- a) Postaz, eskaera helbide honetara bidalita: SELAE, Erregistroa, "Datuen Babesa", Joan Maragall Poeta kalea 53, 28020 Madrid, "Eskubideak gauzatzea" erreferentziarekin. Bertan, honako hauek adieraziko dira argi eta garbi: Loterías y Apuestas del Estadorekin duzun harremana, eskaera, izen-abizenak eta posta-helbidea erantzuna eman ahal izateko.
- b) Edo helbide honetan inprimakiaren bidez bidalitako eskaeraren bidez: www.loteriasyapuestas.es/es/contacto-proteccion-datos. Harremanetarako posta elektronikoa helbidea (postontzi egonkorra) jarri behar duzu, komunikazioak jaso ahal izateko eta SELAEk bere erantzuna bidali ahal izateko.

Datuak babesteko zure eskubidea SELAEk urratu egin duela uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezu Datu Pertsonalak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es).

Halaber, erabiltzaileak eskubidea du Datuek Babesteko SELAEko ordezkariekin kontaktatzeko, aurrean deskribaturiko mekanismoak erabilita.

Datu Pertsonalak ez emateak izan ditzakeen ondorioak:

Eskatzaile eta erreklamatzailerik presentzialak:

SELAEk ezin izango du eskaera edo erreklamazioa behar bezala izapidetu edo interesatuak ezingo du horren gaineko erantzunik jaso.

Saridun Nagusiak:

Datu Pertsonalak emateari eta ondoren tratatzeari uko egiten bazaio, saria ezin izango da ordaindu legezko eta negoziazioko arazoak direla-eta.

Peñakideak:

Datu Pertsonalak emateari eta ondoren tratatzeari uko egiten bazaio, saria ezin izango da ordaindu legezko eta negoziazioko arazoak direla-eta.

Datu Pertsonalen jatorria:

Datu guztiak, ondorengo paragrafoan adierazitakoak izan ezik, interesatuaren eskuetatik edo, hala badagokio, interesatuaren ordezkariearen eskuetatik jasotzen dira. Pertsona fisiko interesatu baten ordezkariek, ordezkatuaren edozein Datu Pertsonal eman aurretik, dokumentu honetan aurreikusitakoaren berri eman behar dio eta Datu Pertsonalak behar bezala jakinarazteko aplikatu daitezkeen bestelako baldintzak bete behar ditu, SELAEk ordezkatuaren aurrean beste inolako jarduerarik egin behar izan gabe informazioaren edo baimenaren aldetik.

Salbuespenak:

- Interesatuaren Banku-erakundeak. Datuak ordainketa egiten duen erakundeak jasotzen ditu SELAEren izenean, eta datu-bilketarako tratamenduaren arduradun gisa jarduten du. Enkargu horri dagokionez, datuak bildu eta SELAEri transmititzea besterik ez du egiten, eta, horretarako, kanal seguruak erabiltzen ditu. Hala ere, jakinarazpen hori egiten da sarien ordainketan SELAErekin lankidetzan jarduten duten erakundeek datuak babesteko dituzten betebeharrak alde batera utzi gabe.

Erabaki automatizatuak eta profilak egitea:

Eskatzaile eta erreklamatazailerik presentzialak:

Datu Pertsonalen tratamendu honek ez ditu erabaki automatizatuak erabiltzen eta profilak egiten.

Saridun Nagusiak:

Zenbait interesatuen profila egiten da, aplikatu daitezkeen araudiak aurrez ezarritako egoerak gertatzen badira.

Ez da erabaki automatizaturik sortzen kasu bakar batean ere.

Peñakideak:

Sari handia eskatu ondoren, baliteke interesatu jakin batzuen profila egitea, aplikatu daitezkeen araudiak aurrez ezarritako egoerak gertatzen badira.

Ez da erabaki automatizaturik sortzen kasu bakar batean ere.